

Hamalaugarren zortzimilakoa lortu du Edurne Pasaban mendizale tolosarrak

Berria.info, 2010-05-17

Gaur, hemen 7:30ak zirela iritsi da Himalaiako Shisha Pangma mendira, eta martxa onean doaz behera. Aurreneko zortzimilakoa 2001eko maiatzean igo zuen: Everest.

Edurne Pasabanek (Tolosa, 1973) munduko hamalau zortzimilakoak baditu dagoeneko. Gaur lortu du hamalaugarrena: Shisha Pangma (8.027 metro). Besteak beste, Alex Txikon eta Asier Iza-girre euskal mendizale eta *Al Filo de lo Imposible* Espainiako telebista saioko taldekideekin. Ondo daudela adierazi dute.



Mendizale tolosarrak guztiei eskerrak eman dizkie, baita bidean geratu diren denei ere.

Badira emakume gehiago munduko hamalau mendirik handienak lortu nahirik. Emakume horien artean, ospetsuena, Hego Koreako Oh Eun-Sun da. Apirilaren 27an Annapurnako gailurrera igo zen, eta munduko hamalau mendirik handienak igotzen lehen emakumezkoa zela zabaldu zen, baina zalantza handiak daude, eta badira Oh Eun-Sun mendizaleari zortzimilako bat falta zaiola adierazten dutenak.

Beraz, erabat argitu gabe dago nor den lehen emakumezkoa munduko hamalau mendirik handienak igotzen.

[Egokitua]

23. Zenbat 8.000 metroko mendi igo ditu Edurne Pasabanek?

- A. Hamasei
- B. Zortzi mila
- C. Hamalau
- D. Ez dakigu

24. Edurne Pasaban, noiz igo da hamalagarren zortzimilakora? Urtea, hilabetea eta eguna esan behar duzu.

.....

.....

.....

25. Testuaren arabera, nor da lehen emakumezkoa munduko hamalau mendirik handienak igotzen?

- A. Testuak ez du horretaz ezer aipatzen.
- B. Edurne Pasaban, argi eta garbi.
- C. Oraindik ez ditu inork lortu.
- D. Ez dago oso garbi.

26. Zure ustez, nolako testua da irakurri duzuna?

- A. Narrazio testua
- B. Albiste edo berri bat
- C. Instrukzio testua
- D. Elkarriketa

27. Non aurki dezakegu testu hau?

- A. Ipuin bilduma batean
- B. Egunkari batean
- C. Entziklopedia batean
- D. Matematikako liburu batean

28. Zure ustez, zergatik izan daiteke garrantzitsua testuak kontatzen duena?

.....

.....

.....